

EUSKADIKO DEMOKRAZIARI ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO LIBURU ZURIA

Gai publikoetan Euskadi parte-hartzaileagoa
eraikitzeko abiapuntua

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

1 ZERGATIK PARTE HARTU?

Gure ekintzek ondorioak dituztelako guztion onuran. Erakundeek, enpresek, elkar-
teek, herritarrek... elkarlanean aritu beharra daukagu gure gizarteko premia eta
arazoei konponbideak aurkitzeko, geroz eta konplexuagoak dira-eta.

Gauzak hobeto egin daitezkeelako eta egin ditzakegulako, eta guztion inplikazioare-
kin gauza hobek ere egin daitezkeelako.

PATCHWORK
“Emaizta ona lortzeko arreta
handiz josi behar direlako uki,
tamaina eta kolore askotako
txatal edo oihalkiak.”



2

NOLA PARTE HAR DEZAKEGU?

Gure gizartearen premiak ase edo arazoak konpontzeko iritzia emanez edo ideiak proposatuz, erakundeek ematen dizkiguten kanalen bidez. **Parte-hartze politikoa da.**

Erabiltzen ditugun edo etorkizunean erabili ahal izango genituzkeen herri-zerbitzuak hobetzeko ideiak aurkeztu edo baloratu. **Zerbitzu publikoak hobetzeko parte-hartzea da.**

Interes komunekin ekinbide herritar edo gizarte-mugimenduak bultzatuz edo lagunduz. **Lankidetzazko parte-hartzea da.**



BRIKOLAJEKO KITA

“Brikolajeko kita erabili behar dugu aurrera egiten lagunduko diguten pieza guztiak batu eta muntatu ahal izateko.”

3 ZER DA PARTE-HARTZEA?

Parte-hartzea eskubide eta betebeharrak bat da. Pertsona guztiek izan behar dute parte hartzeko eta parte aktibo izateko aukera, beraiei eragiten dieten erabaki publikoetan.

Parte hartzen ikasi egiten da eta trebatu egin behar da.

Parte-hartzea konplikatu da, alde guztien konpromisoa eta konfiantza eskatzen ditu.



ELTZEKOA

“Jaki naturala da, su txikitik egina osagai askorekin, non zaporea baita nagusi. Digestioa luzea izan daitekeen arren, elikatu egiten du eta guztion eskura dagoen jakia da.”



4

ZER ALDAKETA EGIN BEHAR DUGU?

Administrazioak hurbilagokoa izan behar du eta herritarrekin elkarrizketarako eta lankidetzarako prestuago egon.

Herritarrek aktiboagoak izan behar dute komunitatearen zereginetan.

ZIRIMIRIA

“Pixkanaka eta ia oharkabean blai egiten gaituen zirimiria bezala”

KONTAKIZUNA BERRIDAZTEN

Aurrera egiten lagutzen ez dituzten **aurreiritzi** batzuk gainditu beharra daukagu:

HERRITARREN ARTEAN

Nik ez dakit honetaz; gainera, oso urruti geratzen zait.

Zertarako? Ez baitu ezertarako balio, gero nahi dutena egiten dute.

Erabili egiten gaituzte.

ADMINISTRAZIOEN ARTEAN

Parte-hartzearen kontu honek distrakzioa dakar. Nahastu eta atzeratu egiten du.

Parte-hartzea eskatzen dute, baina gero ez dira etortzen.

Zertarako honetan sartu? Alde guztietatik emango digute egurra.



Eta prozesu parte-hartzaileak honako hauetarako **baliagarri** izatea bermatu behar dugu:

- Entzuteko eta ekarpenak egiteko.
- Informazioa jaso eta emateko gardentasun osoz.
- Era askotako ahotsak eta ikuspegiak biltzeko: inklusiboak eta irekiak izatea.
- Askotariko formatuak eta kanalak eta kasu bakoitzera egokituak erabiltzeko.
- Arazoak eta irtenbideak eztabaidatzeko ez ezik, planifikatzeko, neurtzeko eta berrikuntza egiteko ere bai.
- Ikasteko, apaltasunetik eta autokritikatik.
- Adostasunak eraikitzeko.


5

NONDIK HASI BEHAR DUGU?

Administrazioak eta herritarrok bat eginda aurre egin behar diegu gizartean ditugun erronka konplexu batzuei:

- **Osasuna** gizabanakoaren eskubidea da, eta erantzukizun kolektiboa.
- Pertsona eta erakunde guztiak izan daitezke **hezkuntza-eragile** pertsonen garapenerako eta komunitatearen hazkunderako.
- Euskadin **giza garapen iraunkorraren** alde egiten dugu, pertsonak garelako protagonista era arduratsuan produzitu eta kontsumitzeko eta bizitza ahalbidetzen digun natura-ingurunea zaintzeko.
- **Gizarte-kontratua** bilatu behar dugu, Euskadi guztiz integratzailea eta kohesionatua bermatzeko, enpleguan, hezkuntzan eta solidaritatean oinarrituta.

Liburu Zuriak proposamen batzuk aurreratzen ditu, herritarren parte-hartzea bultzatzeko jarduera-eremu hauetan.



HERRIKO PLAZA

“Topaketa- eta bizikidetzaguneak sortzea, bertan egoteko, izateko, sartzeko, irteteko... inolako oztoporik gabe.”

6 ZERTARA KONPROMETITZEN DA EUSKO JAURLARITZA?

- Herritarren parte-hartzea **arautu** eta bultzatzera, bere kudeaketa publikoaren oinarritzko printzipio gisa. 2014ko irailean Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektua onartu da, parte hartzeko eskubidea aitortu eta hori bultzatzeko neurriak ezartzen dituena.
- Liburu Zuriaren edukiak **jakinarazi** eta zabaltzera, bai erakundeetan eta bai gizartean oro har.
- Esperientzia berritzaileak **sustatzera**, parte hartzeko hainbat formula esperimentatu ahal izateko.



LIBURU ZURIA EGITEKO 400 PERTSONATIK ETA
150 ERAKUNDETIK GORA PARTE HARTU DUTE.
ELKARLANKIDETZARAKO ETA IKASTEKO EREDUA.

www.irekia.euskadi.net/es/debates/946